

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Adora Osa Arrizabalaga

*Zumaja,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Arritokietara bidean dagoen Añezkoa kale baserrian jaio zen. Txikitatik jardun zuen han eta hemen lantxo txikiak egiten, enkarguak batez ere. Josten ere ikasi zuen, eta galtzerdiak josten aritu zen denbora batez. Itsasontziak kaian sartzen zirenean, Zumaian edota Getarian, herriko emakumeak bertara gerturatzen ziren despesarako. Santos Irigoienekin ezkondu zen, eta Añezkoan bizi izan ziren. Adorak gaur egun bertan bizitzen jarraitzen du.

Zintak

ZUM-104

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2012-11-29
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Kongregazioko emakumeek sakristian egiten zituzten lanak

- **Erref:** ZUM-104/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Amaren bi ahizpa "Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoak ziren. Bera, umea zela, izebekin joaten zen sakristiara. Emakume gehiago ere biltzen ziren han. Garbiketa lanak egiten zituzten. Kotsakrazioan erabilitako zapia ezin izaten zuten emakumeek ukitu. Apaizek uretan uzten zuten zapia. Ur hura elizako hormaren kontra bota behar izaten zen.

2. "Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoentzat enkarguak egiten

- **Erref:** ZUM-104/003
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

"Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoak ziren bi izebei laguntzen ibiltzen zen neskatiletan. Enkarguak egitera bidaltzen zuten, esaterako, eliza apaintzeko lore bila, baratzetara edo intsentsu bila. Kongregazioak ateratzen zituen aldizkaritxoak banatzen ere ibiltzen zen. Eta tarteke Donostiara ere bidaltzen zuten, kongregazioak bertan zuen egoitzara.

3. Norbait hiltzen zenean, kanpaia jo eta `Aita gurea´ errezatu

- **Erref:** ZUM-104/004
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Norbait hiltzen zenean, bizkarrean eraman behar izaten zen. Apaiza pasatzen zenean, kanpaia jo eta `Aita gurea` errezatu behar izaten zen. Berak egiten zituen horrelako lantxoak.</p>

4. Kongregaziorako enkarguen bukaera

- **Erref:** ZUM-104/006
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

"Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoek Andre Mariaren elizarako lore bila bidaltzen zuten Zarauzko Narros jauregira. Kongregazioko arduradunak dirua ematen zion loreak ordaintzeko, baina jauregikoak normalean ez zion hartzen dirurik. Behin jauregikoari dirua eman egin zion, eta kongregazioko buruak marmarrean jardun omen zuen. Orduantxe bukatu ziren bere enkargu txikiak. Hala ere, ezkondu ostean oraindik ere elizako arropak garbitzen jarraitu zuen.

5. Gerra garaian eskola batetik bestera aldatzeko arrazoia

- **Erref:** ZUM-104/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojetan ibili zen eskolan. Gero gerra etorri zen. Mojei abituak kenarazi zizkieten. Osaba ihesi joan zen, "aurrera". Berak eskolan entzun zuen Bilbo aldean zebiltzanek arratoiak jaten zituztela eta horixe esan zion amari. Amari ez zitzaion gustatu, eta eskolaz aldatu zuen. Mojetako irakaslea izeben kongregazio bereko kidea zen; irakasle ona.

6. Gerra garaian izebak herritik bota nahi

- **Erref:** ZUM-104/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, osabak ihes egin zuenean, izebak herritik bidali nahi izan zituzten. Baina izeba bata elbarria zen. Hiru urte zituela erori eta hanka hautsi zuen, eta, ondorioz, hanka ez zitzaion behar bezala hazi. Beste izeba, berriz, erdi-gaixoa zen. Azkenean lortu zuten herritik ez bidaltzea. Aita frontera eramane zuten ordu txikitan bila etorrita. Negar asko egin zuten. Borrokarik gabe konpondu behar direla gauzak dio.

7. Gerraosteko errazionamendua; artoa etxean ehotzen zuten

- **Erref:** ZUM-104/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean ez zuten goserik pasa. Artoa eta garia hartzen zituzten etxean. Gero, bazuten ganbaran haiek txikitzeko makina txiki bat. Kaletik ere etortzen zitzairen jendea artaleak ehotzera. Ez zen irina bezain fina irteten, baina harekin konpontzen ziren. Egosita jaten zuten, edo bestela taloak edo morokila eginda. Errotara Larrondora joaten ziren normalean; bestela Getariara edo Lasara ere bai. Errazionamenduko "boniato"a, okindegira eramaten zuten erretzera.

8. Galtzerdiak konpontzen izeben dendan

- **Erref:** ZUM-104/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Eskola bukatu zuenean ez zegoen lanik, eta izebei laguntzen zien dendan. Gero galtzerdiak konpontzen ikasi zuen Donostian, "Vitos" makinarekin. Izeben dendan egoten zen galtzerdiak konpontzen, haiei lagunduaz. Txanpon batzuk ateratzen zituen, baina asko ez; "emakumeen txanpona" eskasa izaten dela dio. Udaran hotelean ere ibiltzen zen lanean. "Despeskan" ere ibilia da.

9. "Despeskan", antxoak saretik askatzen

- **Erref:** ZUM-104/012
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

"Despeska" nola egiten zen. Antxoa zetorrenean itsasotik, deiadarra egiten zen emakumeak moilara joateko "despeskara". Antxoak sarean kateatuta etortzen ziren; moilan, otarra aurrean zutela, antxoak saretik askatzen ibiltzen ziren. Diru "aberatsa" izaten omen zen; unean bertan ordaintzen zieten. Zumaiakoa bukatutakoan Getariara joaten ziren, oinez, "despeskara". Eta gero egun osorako fabrikara lanera. Irabazten zuten dirua ondo zaindu behar izaten zuten; ez zegoen gastatzerik.

10. Lanerako gizonezkoak aurkitu ezinda

- **Erref:** ZUM-104/014
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

"Despeskan", antxoak saretik askatzen, emakumeak ibiltzen ziren. Gizonezkoek bestelako lan asko izaten zuten. Ez zen gizonik egoten lanik gabe. Aitak gabarrarekin hondarra ekarri, soroko lanak egin eta, horrez gain, langileak bilatzeko zeregina zuen. Eurak aitari laguntzen ibiltzen ziren eskolatik irtendakoan, baserri batera eta bestera joanda, lanerako gizonezko bila.

11. Aitak harrapatutako angulak Oriora marmitean

- **Erref:** ZUM-104/015
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Aita angulatan ibiltzen zen neguan. Gero, amak egosita saltzen zituen. Gerora, Oriora eramaten zituzten, marmitan hartuta. Trenean joaten ziren. Bezperako marmita hutsa jaso eta angulaz betetakoa utzi.

12. Aita gabarrarekin hondarra garraiatzen

- **Erref:** ZUM-104/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Aitak gabarra zeukan. Angulatan ibiltzen zen gabarrarekin; eta baita hondarra ekartzen ere, fundizioetarako (Arruabarrena) edo landareentzat, Oikiara edo Beduara, esaterako. Santioko hondartzan jasotzen zuen hondarra eta moilara eramaten zuen. Han gruarekin bagoia betetzen zuten eta handik behar zen lekura eraman. Eurak aitari "errazioa" eramatera eta konpainia egitera joaten ziren. Oikiara joan behar zenean, zirga-soka botatzen zuen lubakira eta handik tira eginez laguntzen zioten gabarra eramaten.

13. Pentsatze hutsa bekatu, eta haurdun geratuz gero...

- **Erref:** ZUM-104/018
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

"Mariaren alabak" kongregazioa. Hilero jauna hartzera joan behar izaten zuten, zintak jantzita. Andra Mari egunean prozesioa. Ezin izaten zuten mutilekin dantza lotuan egin, bestela kongregaziotik botatzen zituzten eta. Seigarren mandamentuaren inguruan apaizak esaten zituenak. Pentsatzen hutsa ere bekatu zen, baina haurdun geldituz gero, familia osoa hondatzen zen. Bizi bat munduratzearren, zigortu. Orain beste muturrera pasa garela iruditzen zaio, eta ez ditu ulertzen ez bata eta ez bestea.

14. Hondartzara pilotan jolastera, bezperetara joan beharrean

- **Erref:** ZUM-104/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:28:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

San Prudentzioetan Askizura joaten ziren erromeriara, baina gauetz ezin izaten ziren ibili. Garai batean lagun batzuk hondartzara joaten ziren pilotan jolastera. Asteazkenean zehar astirik ez, eta igandean joaten ziren. Behin ama joan zitzaion bila, bezperetara joan ez zelako. Bere biziko zigorrik handiena jaso omen zuen.

15. San Pedro jaietan gurasoekin

- **Erref:** ZUM-104/020
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:28:15. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Pedroetan gurasoekin ibiltzen ziren jaietan. Limonada botilak. Gurasoei mesedez eskatzen zieten kalean pixka bat gehiago geratzeko.

16. "Komeriak" ikusteko egindako komeriak

- **Erref:** ZUM-104/021
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:30:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Komedianteak etortzen ziren herrira, baina etxean ez zieten uzten haiek

ikustera joaten. Norbait hiltzen zenean, ahizpa eta biak etxez etxe ibiltzen ziren arrosarioa errezatzen. Behin aitzakia horrekin "komerixak" ikusten egon ziren. Etxera joandakoan, aitaren ezkutuan, ohean sartu ziren azkar asko, arropa eta guzti.

17. Serorari egiten zizkioten gaiztakeriak

- **Erref:** ZUM-104/023
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:30:42. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Umetan "txintxarrika" jolas egiten zuten, lurra harri batekin markatuta. Eurak jolas egiten zuten inguruan mojetako serora bizi zen eta ateratzen zuten zaratagatik kexu izaten zen beti. Goian Zimmerman familia bizi zen. Egiten zituzten gaiztakeriak kontatzen ditu: sarraila-zulora ura bota, arropak kakaztu... Azkenerako errieta egiteari utzi eta onean baretu zituen umeak emakumeak.

18. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasean kalean

- **Erref:** ZUM-104/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean; "Tres navíos"-ka, kukuka. Kanean ibiltzen ziren denak elkarrekin. Gaur egun zeharo ezberdina da.

19. Izeben jostundegia

- **Erref:** ZUM-104/026
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Izekok egiten zizkien arropak; batarenak bestearentzat moldatu, konpondu... Izebek jostundegia non zuten azaltzen du.

20. Senarra gudari eraman zuten hamabost urterekin

- **Erref:** ZUM-104/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Senarra gurasoekin Bilbora joan behar izan zen ihesi, gerra garaian. Hamabost urterekin gudari moduan mendira eraman zuten borrokara. Kartzelan sartu zuten eta hamahiru hilabete pasa zituen han. Bere bizitzako zazpi urterik onenak galdu zituela esaten omen zuen: batean frontean, bestean kartzelan edo soldadutzan. Ofiziorik ikasteko betarik ez zuen izan eta gero lanik topatu ezin.

21. Lehenbiziko haurra izan zuenean senarra Ternuan

- **Erref:** ZUM-104/029
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:39:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Urtarrilean ezkondu ziren. Ezkon-bidaia egin ostean, otsailean, Ternuara joan zen senarra. Pasaia irteten ziren. Bera haurdun zegoela etorri zen senarra, astebete pasatzera, eta gero berriz buelta. Umea jaio eta gero etorri zen berriro. Saint Pierre et Miquelon-era bidaltzen zizkion eskutitzak. Umea jaio zenean, telefonoz abisatu zioten. Gabonak inguruan etortzen ziren, Pasaian barkua konpondu eta berriz Ternuara. Senarra kanpoan zenean izaten zituen burutazioak.

22. Itsasoa utzi eta "Stella Maris"era

- **Erref:** ZUM-104/030
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:39:38. **Bukatu:** 00:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Senarra Ternuan zenean, triste egoten zen bakarrik. Behin itsasoa uzteko eskatuz idatzi zion senarrari eta halaxe utzi zuen. Egiguren lantegian hasi zen lanean hasieran. Gero "Stella Maris"en, "Apostolado de mar". Zenbait apaizek sortu zuten "Stella Maris", eliza eta itsasgizonen arteko lotura egiteko. Ternuan zeuden arrantzaleekin telefonoz egoten ziren hizketan senideak eta bera hunkitu egiten zen, bere garaian ez zegoen halakorik eta. Bizimodua zenbat aldatu den.

23. Bakailaoa gazituta Ternuatik; bizimodu gogorra

- **Erref:** ZUM-104/033
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:41:43. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Bakailaoa sarearekin harrapatzen zuten Ternuan. Gero gazituta ekartzen zuten barkuan. Itsasoko ura izoztean sortutako izotz-mendiekin kateatuta geratzen zen barkua batzuetan. Bizimodu gogorra ordukoa. Bizimodua zenbat aldatu den. Gaur egun, behar ez ditugun "kapritxo" asko ditugula dio.

24. Arrosarioa egunero errezatu behar

- **Erref:** ZUM-104/034
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:44:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sei senide ziren. Amak Gabonetako kantak kantatzen zituen. Arrosarioa egunero errezatu behar izaten zuten, txandaka. Aitonak ez zuen errezatzen eztarria itxita zuelako eta berak ere horixe nahi.

25. Amak erakutsitako Gabon-kanta

- **Erref:** ZUM-104/035
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:02. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Amak abesten zien Gabonetako kanta bat abesten du. Amaren lehengusu baten etxera joaten ziren Gabon-kantak entseatzera. Gabon-eskean irteten ziren.</p>

26. "Franco! Franco!", deiadarrak kalean

- **Erref:** ZUM-104/037
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Kalean "Cara al sol" abestu behar izaten zuten eskua gora jasota. Gero "ahora veinte veces Franco" esaten zieten eta denek "Franco" deiadar egin behar.

27. Bakearen eta errespetuaren inguruko gogoetak

- **Erref:** ZUM-104/038
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

<p>Bakearen inguruko gogoetak. Bakea beharrezkoa dela dio, norbere baketik hasita. Bere aholkua "inori ez gaitzik egitea". Telebistan eredu okerrak ematen dituztela dio. Errespetua behar da.</p>

28. Kale-etxean hazia, baina abere eta soroekin

- **Erref:** ZUM-104/043
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:53:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gurasoena izan zen etxeko ganbaran prestatu zuten eurentzako etxebizitza eta bertan hazi zituzten hiru seme. Artoa eta babarruna izaten zituzten ganbaran, lehortzen. Bi behi, astoa eta txerria ere izaten zituzten. Aitak soroko lanak egiten zituen, baina etxetik kanpo ere lan egiten zuen etxera diru pixka bat ekartzeko. Amak ere lan egin izan zuen inoiz etxetik kanpo.

29. Amaren izaera eta aholkuak

- **Erref:** ZUM-104/044
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:53:18. **Bukatu:** 00:55:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren izaera. Beti aholku haxe ematen omen zuen: "ez oheratu behin ere inori gaitz eginaren damuarekin". Baserrietako emakumeak aholku eske etortzen omen zitzaizkion. Emakume berezia zen.

30. Erizain lanak ikasi behar ama eta aita zaintzeko

- **Erref:** ZUM-104/046
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:58:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bost urtez gaixorik egon zen ama; bi urtean ohetik jaiki gabe. Aita, berriz, bi urtez flebitisarekin egon zen gaixorik. Iñaxio Alvarez etortzen zitzaion injekzioak ematera. Lehengo "praktikanteak". Lehen etxeko sendagaiekin eta etxean sendatu behar izaten ziren gauza asko. Iñaxiok berari erakutsi zion injekzioak ematen eta handik aurrera denen erizain izan zen.

31. Iñaxio Alvarez eta Ixabel Antia

- **Erref:** ZUM-104/048
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:59:02. **Bukatu:** 01:00:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Jose Ajuria medikua etorri zitzaien etxera amari hemorragia eman zion batean. San Inazio ospitalera eraman zuten transfusioa egitera. Gero Iñaxio Alvarez eta Ixabel Antia joaten ziren euren etxera, bata egunez eta bestea gauez. Ixabel Antia baserrietara ere asko joaten zen. Lan asko egin zuen herrian.

32. 3R pelikulak zinean

- **Erref:** ZUM-104/050
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:01:30. **Bukatu:** 01:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ez zegoen dirurik zinera joateko. Bi zine zeuden garai batean. 3R pelikulak. Zarautzen eta Donostian edo Zumaian sailkapen ezberdina izaten omen zuten pelikulek.

33. Osabak txitxarrotara eta olagarrotara

- **Erref:** ZUM-104/052

- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:04:39. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa

Laburpena:

Osabak txitxarrotara joaten ziren eta Adorak plazan saltzen zituen gero. Olagarrotara ere joaten ziren. Bere semea ere joaten zen, eta zaletu egin zen. Amak lehortzen zituen hasieran olagarroak; gero berak. Eguraldi ona eta haizea dabilen lekua behar du olagarroa lehortzeko.

34. Olagarroak garbitu eta lehortzeko prozesua

- **Erref:** ZUM-104/053
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:06:00. **Bukatu:** 01:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa

Laburpena:

Olagarroak ekartzen direnean, balde batean jartzen dira. Biharamunean ura aldatu eta, eskuekin igurtziz, ondo garbitu, lika kentzeko. Hurrengo egunean berdin. Eguraldiaren arabera, lehortzen jartzen da kanpoan. Puntua harrapatu behar zaio, larregi gorritzen bada, mamia erortzen zaio eta. Euliak ere zaindu behar izaten dira, azala egiten zaion bitartean.

35. Jendea lapatara, "ezina" zegoenean

- **Erref:** ZUM-104/056
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:09:55. **Bukatu:** 01:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

Lehen, "ezina" zegoenean, jendea ez zen eskera joaten. Ahal zutena egiten zuten. Asko lapatara joaten ziren. Lapekin arroza nola prestatzen zen. Lapa azalak balkoitik behera botatzen zituzten. Lapa arrokan kateatuta zegoenean, zaila izaten zen askatzea; hobe uretan. Lapa, "maurlixuak", "txuaskiñak" eta nekorak. Gaur egun denok aberats bizi garela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com